

11/10

irizpena

DROGA-MENDEKOTASUNEN ARLOKO
PREBENTZIO, LAGUNTZA ETA
GIZARTERATZEARI BURUZKO LEGEAREN
HIRUGARREN ALDAKETAREN

Lege proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2010eko urriaren 8an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpenda 11/10

I. AURREKARIAK

Droga-mendekotasunen arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko legearen hirugarren aldaketaren Lege Proiektua Gobernu Batzordeak onartu zuen 2010. urteko irailaren 7ko bere bileran, Euskadiko EGABari horren gaineko nahitaezko txostena eskatu gabe.

EGABek eskatuta eta Euskadiko EGABari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.d) artikularekin bat etorritz (honek berari bere ekimenez edo Gobernuak eskatuta, eta politika ekonomiko eta sozialarekin lotutako gaietan, irizpenak, ebazpenak edo txostenak egiteko eginkizuna egozten dio), 2009. urteko irailaren 6an Batzorde honetan Droga-mendekotasunen arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko legearen hirugarren aldaketaren Lege Proiektua sartu zen.

Berehala dokumentuaren kopia bidali zaie Batzordearen Osoko Bilkuraren kide guztiei bere proposamenak eta iritzia igorri eta hauen berri bidezko Lan Batzordeari emateko xedez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduko Araudian ezarritakoaren arabera.

Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren Droga-mendekotasunen Zuzendari Celina Pereda andrea irailaren 15ean Euskadiko EGABeko Gizarte Garapeneko Batzordearen aurrean agertu da aipatutako Lege Proiektu hori aurkezteko helburuz.

Aipatutako Batzordea, berriro ere, 2010. urteko irailaren 24an bildu da Irizpenaren Aurreproiektuaren lehenengo proposamen bat eztabaibatzeko xedez. Egun berean honek hurrengo Irizpen Proiektua onartu du, 2010. urteko urriaren 8ko Euskadiko EGABeko Osoko Bilkurari aurkezten zaiona, bertan aho batez onartzen dena.

II. EDUKIA

Lege Proiektuaren gaineko testua Zioen Azalpen bat, 28 artikulua eta Azken Xedapen batek osatuta dago.

Zioen Azalpena

Aipatu behar dugu droga-mendekotasunen arloko prebentzio, laguntza eta birgizarteratzeari buruzko azaroaren 11ko 16/1998 Legea onartu eta hamar urtera hau aldatu dela uztailaren 25eko 18/1998 Legearen bidez Eusko Legebiltzarreko Droga-mendekotasunen gaineko Batzordearen 1994. urteko ekainaren 30eko erabakian jasotako zuzentarauetara egokitzeko. Helburuetako batek bestelako eskubide hipotetiko batzuekin talka egoteko egoeretan pertsona ez erretzaileen eskubideak zaintzeko beharra aipatzen zuen.

Gaur egun, tabakoaren kontsumoa, EAEn, droga-mendekotasunen arloko prebentzio, laguntza eta birgizarteratzeari buruzko uztailaren 25eko 18/1998 Legearen bidez araupeturik dago, eta 2006. urteko urtarriletik tabakismoaren aurreko osasun neurriei buruzko eta tabakoko produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea araupetzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Estatuko Legearen bidez.

Estatuko 28/2005 Legea indarrean sartzeak lantokietan (garraiobideak barne) eta kultura edo kirol zentroetan erretzeko debekua ekarri zuen, baina salbuespenak ezarri zituen ostalaritzako sektorean eta aisiako tokietan; gainera, tabakismoaren prebentziorako bestelako alderdi garrantzitsu batzuk ere araupetu zituen, hala nola salmentaren mugatzea eta publizitate, babes eta sustapenaren erregulazioa.

28/2005 Legea indarrean sartu zenetik, tabakismoa kontrolatzeko Europako Estrategia eta tabakoa kontrolatzeko OMEren Esparru Hitzarmena direla kausa, tabakoarekin lotuta Europako hainbat Zuzentarau onartu dira, eta Europako Parlamentuak EBko Estatu kideei eskatu zaie lantoki itxietan, bai eta EBko eraikin eta garraiobide itxi guztietan eta haur parke publikoetan ere, erretzeko debekua ezartze-

ko, besteak beste. Era berean, Europako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Batzordeari eskatu zion legegintzako proposamen berriak saritzeko aukera aztertzeko. Eta horien artean honakoak plazaratu zituen:

- Tabakoaren erabilera debekatzea garraio pribatuan adin txikiko pertsonak daudenean.
- 18 urtetik beherako pertsonen tabakoaren produktuen salmenta debekatzea eta tabakoaren produktuak saltokietako autozerbitzuko apalategietatik kentzea.

Jarraian legegintzako ekimenaren xedea aurkezten da: 18/1998 Legea aldatzea tabakoarekin lotutako kontuei dagokienez, OMEk, EBk eta Estatuko oinarritzko legeriak -osun publikoa babesteko esparruan- planteatutako eskakizunetara egokitzeko, arlo honetan:

- Tabakoaren kontsumoaren publizitatea eta sustapena.
- Tabakoaren hornidura eta salmenta.
- Kontsumoa hirugarrenak ukitzen dituen jendeari zabalik dauden toki itxietan eta adin txikikoak aurrean daudenean.
- Arau-hausteak eta zigorrak.

Azalpena bukatzeko eraginda gertatzen diren kapituluak zerrendatzen ditu. Honakoak dira:

- “Droga-mendekotasunen Prebentzioaren” II. kapitulua, tabakoaren produktuen sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurrien erregulazioa aldatuta eta
- V. kapitulua “Arau-hauste eta Zigorren Araubidea”

Xedapenen Atala

Alde batetik, lehenengo, hirugarren, bosgarren, zazpigarren, bederatzigarren eta hamaikagarren artikuluek, hurrenez hurren, 18/1998 Legearen 13, 14, 15, 16, 17 eta 18 artikuluen tituluari eta edukiari idazketa

berria ematen diete edari alkoholduen publizitate, sustapen, kanpo zein barruko eta komunikabideetako publizitatearekin lotuta.

Bestaldetik, bigarren, laugarren, seigarren, zortzigarren, bederatzigarren eta hamabigarren artikuluek, hurrenez hurren, 13 bis, 14 bis, 15 bis, 16 bis, 17 bis eta 18 bis artikuluek eranstean dizkiote 18/1998 Legeari, tabakoaren produktuen publizitate, sustapen, kanpo eta barruko eta komunikabideetako publizitatearekin lotuta.

Hamahirugarren eta hamalauugarren artikuluek tabakoaren produktuen salmenta eta hornidura araupetzen dituzte eta, beste alderdi batzuen artean, tabako eta tinbrearen saltokien sarean edo saltzeko makinaren bitartez bakarrik egin ahal izango direla hurrengo toki hauetan:

- Bide publikoan kokaturiko prentsako kioskoen barruan eta bide publikora zuzeneko sarbidea duten prentsa saltzeko lokal espezifikoetan.
- Hotel, ostatu eta antzeko establezimenduetan.
- Taberna, jatetxe eta jatetxe-ardoko gainerako establezimendu itxiak, erretzea debekaturik dagoen zentro edo dependentzien barruan kokaturik badaude izan ezik.
- Dantzalekuak, joko-establezimenduak edo erabilera publikokoak oro har, adin txikiko pertsonak sartzea baimenduta ez duten ordutegian zehar.

Hamabosgarren eta hamaseigarren artikuluek 18/1998 Legeari bi artikuluko berri eranstean dizkiote tabakoaren produktuak saldu eta hornitzea debekaturik dauden kasu edota tokiak erregulatzeko xedez.

Hamazazpigarren artikuluek idazketa berria ematen dio 18/1998 Legearen 23 artikuluari tabakoaren Kontsumoa erregulatzeko xedez. Zehazki, erabilera publikoko espazio itxi guztietan eta bere azaleraren %50 baino gehiagotan hormez edo sabaiaz estalita dauden eta aire-korrante handia ahalbidetzen ez duten lokal itxi batetik kanpo kokaturiko eremu guztietan erretzea debekatzen du. Zehazki, baina ez bakarrik, honako hauetan erretzea debekatzen da:

- ...18 urtetik beherako pertsonentzako jolas, aisia eta ikuskizuneko guneetan. baita aire zabaleko guneetan ere...
- ...Merkataritza Guneetan.
- Hotel, ostatu eta antzeko establezimenduetan, aire zabaleko espazioetan izan ezik...
- ...Taberna, jatetxe eta jatetxe-arloko gainerako establezimendu itxi edo erdi-itxietan...
- ...Aisia edo aisialdiko zentroetan, aire zabaleko espazioetan izan ezik.
- Gizarte-arretako zentro, alojamendu eta bestelako establezimenduetan, aire zabaleko espazioetan izan ezik.
- Adin txikiko pertsonak dauden edozein ibilgailu pribatu motatan...
- ...Aireportuetan, aire zabaleko espazioetan izan ezik...

Salbuespenez erre ahal diren guneak habilitatu ahal izango dira osasun arrazoiengatik edo zigorrak betetzeagatik espazio itxi jakin batzuetan egon behar duten pertsonentzat, betiere eskakizun jakin batzuk beteta (*18/1998 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarria aldatzen duen hogeita zortzigarren artikulua*).

Hemezortzigarren, hemeretzigarren eta hogeita batgarren artikuluek 18/1998 Legeak arau-hausteen arloan ezarritako erregulazioa aldatzen dute.

Ondorioz, erreforma nagusiek hurrengo alderdi hauekin zerikusia dute:

- “Erretzea” eta “Erretzea baimentzea” arau-haustetzat tipifikaturik daude.
- Tabakoa adin txikikoei saltzea arau-hauste larritzat tipifikaturik dago.
- Tabako arloko publizitate eta sustapenari buruzko arau-hausteak oso larritzat tipifikaturik daude.

Hogeita bigarren artikuluan, 18/1998 Legearen 49. artikuluan 4. letrorokada berri baten bidez, erantzukizun berriak ezartzen dira tabako arloan; eta hogeita hirugarren artikuluan bidez 49bis artikulua berria gaineratzen zaio 18/1998 Legeari. Bertan kautelazko neurriak jasota daude.

Hogeita laugarren eta hogeita bosgarren artikulua zehapenei eta hauen zenbaterokoei buruzkoak dira.

Hogeita seigarren artikulua idazketa berria ematen die ikuskatu eta zigortzeko eskumenei buruzko 18/1998 Legearen tituluar eta 54. artikuluar, honela bada:

- Tabakoaren arloko kontrola eta ikuskapena hauen esku daude:
 - Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorren mendeko Ikuskapen unitateak.
 - EAEko polizia.
- Tabakoaren arloan zigortzeko eskumena honako hauei egozten zaie:
 - Droga-mendekotasunen arloko eskudun sailaren lurraldeko ordezkariak, arau-hauste arinak direnean.
 - Droga-mendekotasunen arloko eskudun sailaren organo egozia arau-hauste larriak direnean.
 - Gobernu Batzordea arau-hauste oso larriak direnean.

III. GOGOETAK

Tabakoaren kontsumoa, EAEn, droga-mendekotasunen arloko prebentzio, laguntza eta birgizarteratzeari buruzko uztailaren 25eko 18/1998 Legearen bidez araupeturik dago, eta 2006. urteko urtarriletik tabakismoaren aurreko osasun neurriei buruzko eta tabakoko produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea araupetzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Estatuko Legearen bidez. Estatuko Legearen aurreikuspenetako asko Euskadiko 18/1998 Legeak zegoeneko biltzen zituen.

18/1998 Legearen hirugarren Lege Proiektua gure irizpenera aurkeztenda, tabakoarekin lotutako kontuei dagokienez, OMEk, EBk eta Estatuko oinarritzko legeriak -osasun publikoaren esparruan- planteatutako eskakizunetara egokitzeko:

- Nazio Batuen Umearen Eskubideen gaineko Hitzarmena (1990)
- Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) Tabakoa Kontrolatzeko

Esparru Hitzarmena (TKEH, 2003).

- OMEren estrategia europarra erretzeko ohitura uzteko politikari buruzkoa (2004).
- “Kerik gabeko Europa baterantz: aukera politikoak EBko eskalan” Li-buru Berdea (2007)
- OMEren gomendioak tabakoaren zeharkako kearekiko esposizioaren aurkako babesari buruz (2007).
- Europako Parlamentuaren 2009. urteko azaroaren 26ko ebazpena, kerik gabeko guneei buruzkoa.
- EBko Kontseiluaren 2009. urteko azaroaren 30eko gomendia, kerik gabeko guneei buruzkoa.

TABAKOAREN KONTSUMOA SEXU ETA ADIN TALDEEN ARABERA (%). 2002 eta 2007								
	Ez du erretzen		Erretzaile-ohia		Noizbehinka erretzen du		Erretzailea	
	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007
GUZTIRA								
Guztira	54,9	54,6	15,2	17,4	3,9	3,1	26,1	25
16-24	62,2	68,3	5,2	3,4	4	4,1	28,6	24,2
25-44	45,2	47,6	13,9	14,5	5,2	4,2	35,7	33,7
45-64	51,8	47,2	20,1	24,9	3,6	2,5	24,5	25,4
65 eta gehiago	72,8	71,2	17,5	18,8	1,6	1,3	8,1	8,7
GIZONEZKOAK								
Guztira	43,3	45,4	20,4	21,8	4,9	3,7	31,4	29,1
16-24	62,6	68,9	3,7	3,4	4,5	4,8	29,2	22,9
25-44	42,8	48,4	13,1	11,8	5,4	4,2	38,6	35,6
45-64	33,7	35	28,9	31,9	5,4	3	32	30,2
65 eta gehiago	43,7	42,2	37,7	38,6	3,1	2,9	15,5	16,3
EMAKUMEAK								
Guztira	65,8	63,2	10,2	13,2	2,9	2,6	21,1	21,1
16-24	61,7	67,6	6,8	3,5	3,4	3,4	28,1	25,5
25-44	47,7	46,7	14,7	17,2	4,9	4,3	32,7	31,8
45-64	69,3	59	11,6	18,1	1,9	2,1	17,2	20,8
65 eta gehiago	93,3	91,7	3,2	4,8	0,6	0,2	2,9	3,3

Tabakoa kontrolatzeko OMEren Esparru Hitzarmenaren 8.1 artikuluan aitortzen da zientzialarien artean zalantzarik gabeko adostasuna dagoela kanpoko tabakoaren kearen pean egoteak heriotza, erikortasuna eta ezigaitasuna eragiten dituela adieraztean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunaren Inkesta, 2007 (erabilgarri dagoen azkena) inkestaren datuen arabera biztanleen %25ak erre ohi du: Gizonezkoen %29,1 eta emakumezkoen %21,1.

Datu hauek 2002. urteko inkestan lortutakoekin alderatuz gero, deigarria gertatzen da emakumeen kolektiboak hartutako jarrera, izan ere, 2002. eta 2007. urteen artean, tabakismoa murriztu bada ere, aipatutako murrizketa gizonezkoen arteko kontsumoaren beherakadaren ondorioa da, emakumeen artean egonkortu baita. Eta bereziki kezagarria da emaku-

TABAKOAREN KONTSUMOA SEXU ETA TALDE SOZIOEKONOMIKOAREN ARABERA (% estandarizaturia adinaren arabera).								
2002 eta 2007								
	Ez erretzailea		Erretzaile ohia		Noizbehinkako erretzailea		Erretzailea	
	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007
GUZTIRA								
Guztira	54,9	54,6	15,2	17,4	3,9	3,1	26,1	25
GIZONEZKOAK								
Guztira	43,3	45,4	20,4	21,8	4,9	3,7	31,4	29,1
I. taldea	44,7	48,2	22,4	23,5	3,5	4,6	29,4	23,8
II. taldea	44,7		23,9		5,5		25,8	
III. taldea	45,2	43,9	18,1	23,0	5,1	4,0	31,5	29,2
IV. taldea	42,6	44,5	19,7	20,9	5,0	3,3	32,7	31,3
V. taldea	40,1		21,3		5,4		33,2	
EMAKUMEAK								
Guztira	65,8	63,2	10,2	13,2	2,9	2,6	21,1	21,1
I. taldea	59,2	56,0	12,9	18,5	3,1	3,4	24,7	22,1
II. taldea	61,1		14,0		3,4		21,5	
III. taldea	63,1	62,4	11,0	12,9	4,0	1,7	22,0	23,1
IV. taldea	68,4	66,4	8,7	11,0	2,3	2,4	20,6	20,3
V. taldea	70,2		9,1		3,3		17,3	

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren Osasunaren Inkesta, 2002 eta 2007

I. taldea.- Administrazio eta enpresen zuzendariak. Goi mailako funtzionarioak. Ogi-bide liberalak. Goi Mailako Teknikariak.

II. taldea.- Merkataritza eta zerbitzu pertsonalen zuzendariak eta jabe kudeatzaileak. Bestelako teknikariak (ez goi mailakoak). Artistak eta kirolariak.

III. taldea.- Goi-mailako langileak eta erdi mailako arduradunak. Administrazioariak eta funtzionarioak. Babes eta segurtasuneko zerbitzuen pertsonak.

IV. taldea.- Industria, merkataritza eta zerbitzuen eskuzko langile kualifikatuak eta erdi kualifikatuak.

V. taldea.- Langile ez kualifikatuak.

me gazteenen artean (16 eta 24 urte bitartean) erretzeko ohiturak adin horretako gizonena gainditzen duela, %25,5 eta %22,9 hurrenez hurren.

Pertsona bat den talde sozioekonomikoaren aldagaia sartuz gero, berriz, ikus dezakegu zenbat eta maila sozioekonomiko baxuagoa, tabakismoa orduan eta maizago dela; halere, patroi hau ohikoagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino.

OMEren aipatutako Esparru Hitzarmenaren 8.2 artikuluan Alderdi bakoi-tzari (Estatua) eskatzen zaio ezen, dagoen jurisdikzio nazionalaren arloetan eta legeria nazionalak erabakitzen duenarekin bat etorritik, lege, exekuzio, administrazioko neurriak edota babesteko bestelako neurri eraginkorrak hartu eta aplikatzeko tabakoaren kearen esposizioaren aurka barruko lantokietan, garraiobide publikoetan, toki publiko itxietan eta, bidezkoa denaren arabera, beste toki publikoetan, eta beste maila jurisdikzional batzuetan aipatutako neurriak hartu eta aplikatzea aktiboki sustatzeko.

Estatuko 28/2005 Legea indarrean sartzeak lantokietan (garraiobideak barne) eta kultura edo kirol zentroetan erretzeko debekua ekarri zuen, baina salbuespenak ezarri zituen ostalaritzako sektorean eta aisiako toki-
kietan; gainera, tabakismoaren prebentziorako bestelako alderdi garrantzitsu batzuk ere araupetu zituen, hala nola salmentaren mugatzea eta publizitate, babes eta sustapenaren erregulazioa.

28/2005 Legea indarrean sartu zenetik, aurretik ere aipatu bezala, tabakismoa kontrolatzeko hainbat ekimen egon dira.

Tabakoa Kontrolatzeko OMEren Esparru Hitzarmeneko Alderdien Hitzaldiak, bere lehenengo bileran, 2006. urteko otsailean eginda, erabaki zuen FCRC/COP1(15) erabakia) zuzentarauak egitea 8. eta 9. artikulua aplikatzeko. Aipatutako zuzentarau horiek Alderdien Bigarren Hitzaldian hartu ziren (2007. urteko uztaila), eta legeria eraginkorraren irismenari buruzko epigrafean honakoa aipatzen dute:

23. 8. artikulua tabakoaren kearen esposizioaren aurkako neurri eraginkorrak hartzea eskatzen du 1) barruko lantokietan, 2) toki publiko itxietan, 3) garraio bide publikoetan eta 4) “egokia denaren arabera, beste toki publiko batzuetan”.

24. Honek babes unibertsala emateko betebeharrak sortzen ditu toki publiko itxi guztiak, barneko lantoki guztiak, garraio bide publiko guztiak eta, ziur aski, beste toki publiko batzuk (kanpokoak edo ia kanpokoak) kanpoko tabakoaren kearen esposizioari gabe egotea ziurtatuta. Argudio sanitario edo juridikoetan oinarriturik justifikatzen den salbuespenik ez dago. ...

11/10*i*

25. Ez dago kanpoko kearen esposizio maila segururik eta, Alderdien Hitzaldiak bere FCTC/COP1(15) erabakian aitortu zuen bezala, aireztapena, airearen berritzea eta erretzaileei zuzendutako guneak erabiltzea bezalako soluzio teknikoetan oinarritutako metodoek ez dute babesten tabakoaren kearen esposizioaren aurka.

26. Babesa eman behar da barrukoak edo itxiak diren lantoki guztietan, baita lantokizat erabilitako ibilgailu automotorretan ere (taxiak, anbulantziak edo salgaiak banatzeko ibilgailuak esate baterako).

27. Itunaren testuak eskatzen du babes-neurriak aplikatzeko, ez “barruko” toki publiko guztietan bakarrik, baizik eta baita beste toki publiko “horietan” ere (hau da, kanpokoak edo ia kanpokoak direnak), “egokia denaren arabera”. Kanpoko eta ia kanpoko toki publiko horiek identifikatzean, legeriarekin bat etorritik egokia denaren arabera, Alderdiak proba zientifikoak kontuan hartu beharko dituzte hainbat inguruetan osasunerako egon daitezkeen arriskuen gainean, eta esposizioaren aurka eraginkorrenak diren babes-neurriak hartzeko xedez jardun beharko dute, aipatutako probek arriskua dagoela frogatzen baldin badute.

Gure iritziz, 24. puntuari dagokionez, argudio ekonomikoak ezin dira aurka erabili, izan ere, frogaturik dago tabakismoaren aurreko osasun neurri buruzko eta tabakoko produktuen salmenta, hornidura, kon-

tsumoa eta publizitatea araupetzen dituen abenduaren 26ko indarreko 28/2005 Legea estatuan onartu zenean iragartzen zuten enpleguen suntsiketa (masiboa) ez dela gertatu.

Testuinguru honetan, Europako Parlamentuak (2009. urteko azaroaren 26ko Europako Parlamentuaren Ebazpena, kerik gabeko guneei buruzkoa) EBko estatu kideei eskatu die ezen, beste gauza batzuen artean, lantoki itxietan, baita EBko eraikin eta garraiobide publiko itxi guztietan eta haurren parke publikoetan ere, erretzeko erabateko debekua ezartzeko.

Era berean, Europako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, indarreko arauak berrikusteko eskatzeaz gainera, Batzordeari eskatu zion legegintzako proposamen berriak sartzeko aukera aztertzeko. Eta horien artean honakoak plazaratu zituen:

- Tabakoaren erabilera debekatzea garraio pribatuan adin txikiko pertsonak daudenean.
- 18 urtetik beherako pertsonen tabakoaren produktuen salmenta debekatzea eta tabakoaren produktuak saltokietako autozerbitzuko apalategietatik kentzea.

Ondorioz, EBren joera toki itxietan erretzea debekatzea da, kerik gabeko guneei buruzko 2009. urteko azaroaren 30eko Batzordearen Gomendioak eta Parlamentuaren azaroaren 26ko aipatutako Ebazpenak jaso bezalaxe. Honek tabakoaren kearen esposizioaren aurka eraginkortasunez babestea xedatzen du barruko lantokietan, toki publiko itxietan, garraiobide publikoetan eta, egokia denaren arabera, beste toki publiko batzuetan, Tabakoa Kontrolatzeko OMEren Esparru Hitzarmenaren 8. artikuluan erabaki bezala eta Hitzarmenaren Alderdien Bigarren Hitzaldian hartutako tabakoaren kearen esposizioaren aurkako babesari buruzko zuzentarauetan oinarriturik.

Horregatik guztiagatik, Euskadiko EGABek 18/1998 Legearen hirugarren aldaketa animatzen duen legegintzako ekimena hori positiboki ba-

loratzen du, jendeari zabalik dauden espazio itxi guztietan eta ibilgailu pribatuetan erretzearen debekua erregulatzea planteatzean, bertan dauden pertsonetakoren bat adinez txikia denean; eta, osasun publikoaren ikuspegitik, hiritar guztien osasuna babesteko neurrietan aurrera egitea lortzera jotzean.

Hala eta guztiz ere, Batzorde honek hain bat gogoeta plazaratzea beharrezkotzat jotzen du:

1. Bereziki garrantzitsutzat jotzen dugu aurkezten diguten legealdaketan aurrera egitea, biztanleen, oro har, osasuna eraginkortasun handiagoz sustatu eta babesteko baitu eta, zehazki, ostalaritza, jatetxe-arlo eta gaueko aisiako espazioetan bere jarduera garatzen duten langileena, izan ere, bertan egun erre daiteke eta tabakoaren inguruneko kea den bezalako jatorri kimikoko arrisku baten esposizio iraunkorra nahitaez pairatu behar dute. Horregatik, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak ere tabakoaren kontsumoaren kontsiderazioa sustatu beharko luke lantokiko arriskuaren ebaluazioak egiteko orduan.
2. Droga-mendekotasunak prebenitzeko lan esparruaren egokitasuna kontuan harturik eta Gizarte Agente guztien eraginkortasuna eta inplikazioa handiagoa izateko asmoz, Eusko Jaurlaritzaren Droga-mendekotasunen Zuzendaritzak, OSALANekin batera, sindikatu eta enpresen erakundeekin elkarrizketa bultzatu beharko luke Akordioak (laneko arriskueta aurreneurriak hartzean txertatuta) edo droga-mendekotasunen Prebentzio Planak lortzeko EAEko lan esparruan, sektore eta enpresetan; hauek osasuna, lan-giroa hobetzen eta ez-behar-kopurua eta absentismoa murrizten lagundu behar dute pertsona eriak berreskuratu eta gizarteratzeko, prebentzioko politikak hartuta.

Bestaldetik, Prebentzioko Zerbitzuen Osasun Zerbitzuekin elkarlanean, bere borondatez lortu nahi duten langileei erretzeari uzten laguntzeko planak sustatzea.

3. Ostalaritzaren sektoreko erantzukizunaren erregimenarekin lotuta zehaztasun maila handiagoa beharrezkotzat jotzen dugu. Zalantzak sortzen zaizkigu hurrengo galdera hauek, adibidez, egitean:
 - Nola bereizi benetan arduraduna nor den titular, arduradunaren...artean bereizten denean?
 - Zein inplikazio maila dute aurreko pertsonak arau-haustearen kontrolean?
4. Gazteen artean eta zehazki emakumeen kolektiboaren artean tabakoaren kontsumoari dagokionez aurkezten ditugun estatistikako datuak ikusita, beharrezkotzat jotzen dugu kontzientziatu eta sensibilizatzeko ekintzak planteatzea, eta ez debekatzeko ekintzak soilik, are gehiago aipatutako taldeak biltzen diren eta kontrolatzen errazak ez diren lokalak daudela ezagutzen dugunean.
5. Azkenik, baina garrantzitsua ere dena, ikus dezakegu Lege aitzindaria eta oso zorrotza dela, eta horrek nolabaiteko kezka eragiten digu bere agindu guztien benetako betetzeari dagokionez.

IV. ONDORIOAK

Euskadiko EGABek droga-mendekotasunen arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko legearen hirugarren aldaketaren Lege Proiektuari buruzko edukia egokitzat jotzen du, aholkularitzako organo honek egindako kontsiderazioak eginda.

Hala eta guztiz ere, eta Droga-mendekotasunen Zuzendari Celina Pereda andreak, EAGEko Gizarte Garapeneko Batzordearen aurrean aipatutako Proiektua azaltzeko agertzean, izandako begirunea eskerturik, bere izapideetan egindako prozedura-akatsaren berri eman nahi dugu, izan ere, ez dute EGABari beharrezko txostena eskatu Gobernu Batzordeak onartu baino lehenago.

Bilbon, 2010eko urriaren 8an

O.E.: Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos